

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak Durangaldeko biztanleak izango dira, adin guztietakoak baina batez ere 20 urtetik gorakoak, hauek diru sarrerak izaten dituztelako normalean eta beraien elikaduraz arduratzen baitirelako. Baina horrez gain, Bizkaiko baserriarrei salduko diegu gure produktua (konposta).

Pertsona hauek, bertakoa eta sasoikoa kontsumitzen saiatzen direnak izango dira. Horrez gain, marketing estrategiak baliatuko ditugu inguruko herrietan zabaltzeko eta adin guztietako jendeak gure berri izateko.

BEZEROAK	KANTITATEA	EHUNEKOA
Durango	100-200	%44,4
Iurreta	20-30	%6,67
Zornotza	40-50	%11,11
Abadiño	40-50	%11,11
Berriz	20-30	%6,67
Zaldibar	10-20	%4,44
Elorrio	60-70	%15,56

